

Donostian, 2021eko abenduaren 20an

En San Sebastián, a 20 de diciembre de 2021

BILTZEN DIRA

José Ignacio Asensio Bazterra jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko foru diputatua, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusi Antonio Aiz Salazar jauna eta Añarbeko Uren Mankomunitateko presidentea, Miren Jaione Hervás Sáez de Arregui andrea.

SE REUNEN

El Sr. José Ignacio Asensio Bazterra Diputado Foral de la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa, el Sr. D. Antonio Aiz Salazar, Director General de la Agencia Vasca del Agua y la Sra. Dña. Miren Jaione Hervás Sáez de Arregui, Presidenta de la Mancomunidad Municipal de Aguas del Embalse del Río Añarbe

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako foru diputatua gisa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren legezko ordezkari gisa, Diputatuen Kontseiluak 2021eko abenduaren 15eko bilkuran hartutako erabakiaren bidez egintza honetarako berariaz baimenduta.

Bigarrenak, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikulua ematen dizkion eskumenak betez.

Hirugarrenak, Mankomunitatearen Estatutueta artikulua erakundea

INTERVIENEN

El primero de ellos, en su condición de diputado foral del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, en representación de la Diputación Foral de Gipuzkoa, autorizado expresamente para este acto por acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión celebrada el 15 de diciembre de 2021.

El segundo, en su calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g) de sus Estatutos.

La tercera, en ejercicio de la capacidad legal de representación de la

ordezkatzeko ematen dion legezko gaitasuna betez, eta Mankomunitatearen Batzarrak, 2021eko abenduaren 17an egindako bilkuran hartutako erabakiari esker.

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. Añarbeko Uren Mankomunitatearen kudeaketa-sozietate publikoa da, eta, beraz, Mankomunitateak, hitzarmen honi dagokionez, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. sozietatearen bitartez jarduten du.

Parte hartzen duten aldeek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko beharrezko legezko gaitasuna onartzen diote elkarri eta, horretarako

HONAKOA AZALTZEN DUTE

LEHENENGO.- Euskal Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 11. eta 33. idatz-zatien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, bere lurralde eremuaren barruan, aprobetxamendu hidraulikoen gaineko eskumen eskusiboa, baldin eta ibaiek ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidego barruan egiten badute, bai eta Estatuak legez interes orokorreko zatia jo ez dituen eta beste autonomia erkidego batzuei eragiten ez dieten obra publikoen gainekoak ere.

Mancomunidad que le confieren sus Estatutos y en virtud de acuerdo adoptado por la Junta de la Mancomunidad en sesión celebrada el 17 de diciembre de 2021.

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. es la sociedad pública de gestión de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, y por tanto, ésta actúa en lo relativo al presente Convenio a través de Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.

Las partes intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN, y a tal efecto

EXPONEN

PRIMERO.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

Uztailaren 12ko 297/1994 Dekretuaren bidez - Estatu Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari baliabide eta ustiakuntza hidraulikoen arloko funtzioak eskualdatzeari buruzko Eskualdatzeen Batzorde Mistoaren Erabakia onartu zuena - Estatuari zegozkion funtzioak eta bitartekoak EAEra eskualdatu ziren, besteak beste, toki-korporazioei laguntza ematekoa Autonomia Erkidegoaren lurraldean egiten diren obra hidraulikoak gauzatzeko, betiere, jarduketa horiek EAEko Administrazioak interesgarri jotzen dituenean, horiek egiteak beste autonomia erkidego bati eragiten ez dionean eta legez Estatuaren interes orokorrekin jotzen ez direnean.

BIGARREN.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko uztailaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuak onartzen du, besteak beste, ezen, obra hidraulikoen arloan, eginkizunak eta eskumenak 27/1983 Legeak, azaroaren 25ekoak, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei buruzkoak, 7. artikuluko a) 10 eta b) 4. apartatuetan zehaztutakoak eta ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legetik eratorritakoa direla; hau da, azpiegitura

Por Decreto 297/1994, de 12 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias sobre traspaso de funciones de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de recursos y aprovechamientos hidráulicos, se han transferido las funciones y medios correspondientes, entre otros, al otorgamiento de auxilios a corporaciones locales para la ejecución de obras hidráulicas que se realicen en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando tales actuaciones sean de su interés, su realización no afecte a otra Comunidad Autónoma y no tengan la calificación legal de interés general del Estado.

SEGUNDO.- Que, en lo referido a la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Decreto Foral 16/2020, de 20 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas, reconoce, entre otras, que en materia de obras hidráulicas, las funciones y competencias son las que resultan de los apartados a) 10 y b) 4 del artículo 7 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, y las derivadas de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas del País Vasco, esto es: obras

hidraulikoei buruzko obra publikoak eta ur publiko kontinentalen eta horien ibilgu naturalen, erriberen eta zorguneen polizia. Horrekin batera, diputazioek udal izaerako edo udalaz gaindiko zerbitzu publikoei dagokienez duten zereginaren ondoriozkoak ur horniduraren eta saneamenduaren arloan, uholdeak prebenitzeko obretan eta hiri hondakinetan.

públicas relativas a infraestructuras hidráulicas y policía de aguas públicas continentales y de sus cauces naturales, riberas y servidumbres. Todo ello junto con las que derivan del papel de las diputaciones respecto de los servicios públicos de carácter municipal o supramunicipal en materia de abastecimiento y saneamiento de aguas, obras de prevención de inundaciones y residuos urbanos.

Zehazki, bere bederatzigarren artikulua Obra Hidraulikoetako Zerbitzuari esleitzen dizkio aldez aurreko azterlanak, aurreproiektuak eta proiektuak idaztea edo zuzentzea lurraldeko ur hornidurako eta saneamenduko azpiegiturak egiteko eta hobetzeko.

En concreto, su artículo noveno atribuye al Servicio de Obras Hidráulicas la potestad para redactar o dirigir estudios previos, anteproyectos y proyectos para la construcción o mejora de las infraestructuras de abastecimiento y saneamiento del territorio.

HIRUGARREN.- 2007ko azaroaren 23an, EAEko Administrazioak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, Añarbeko Uren Mankomunitateak eta Txingudiko Zerbitzu Mankomunitateak akordio hau izenpetu zuten: "GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN 2003-2006 ALDIAN SANEAMENDUKO AZPIEGITURAK ERAIKITZEKO ARAU-HITZARMENA 2007-2011 ALDIRAKO ZABALTZEKO AKORDIOA".

TERCERO.- Que, el 23 noviembre de 2007 la Administración de la CAPV, la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, la Mancomunidad de Aguas del Añarbe y la Mancomunidad de Servicios de Txingudi suscribieron el "ACUERDO DE AMPLIACIÓN AL PERIODO 2007-2011 DEL 'ACUERDO MARCO PARA LA CONSTRUCCIÓN DE INFRAESTRUCTURAS DE SANEAMIENTO EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA EN EL PERIODO 2003-2006'".

LAUGARREN.- Akordio horretan Anoetako ibarbidea saneatzeko proiektuari buruzko obra jasotzen zen, ubide horren arroko isurketei irtenbidea emateko.

BOSGARREN.- Tresna hori sinatu zenetik hamar urte igaro dira, eta aurreikusitako hainbat obra ezin izan dira epe barruan egin. Gauzatzeko dauden obren artean, Anoetako ibarbideko saneamenduari dagokiona dago.

SEIGARREN.- Indarrean dagoen plangintza hidrologikoaren helburuak berrikusi ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Uraren Euskal Agentziak eta Añarbeko Uren Mankomunitateak beharrezkotzat jo dute obra horiek biziberritzea eta gauzatzea.

ZAZPIGARREN.- Hori dela eta, kontuan hartuta hiru aldeek une honetan lan horiek egiteko dirua dutela, eta obrak ahalik eta lasterren egiteak duen garrantzia, komenigarritzat jotzen dute orain hitzarmen hau sinatzea.

ZORTZIGARREN.- Aurreko guztiagatik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Servicios

CUARTO.- En dicho acuerdo se incluía la obra relativa al Proyecto de saneamiento de la vaguada de Anoeta para poner solución a los vertidos de la cuenca de dicha regata.

QUINTO.- Que, transcurridos diez años desde la suscripción de dicho instrumento, varias de las obras previstas en el mismo no han podido realizarse en plazo. Entre las obras pendientes de ejecución, se encuentra la referente al saneamiento de la vaguada de Anoeta.

SEXTO.- Revisados los objetivos de la planificación hidrológica en vigor, la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Agencia Vasca del Agua y la Mancomunidad de Aguas del Añarbe consideran necesario revitalizar y ejecutar las citadas obras.

SÉPTIMO.- En este sentido, atendiendo a que las tres partes tienen en este momento disponibilidad económica para la consecución de estas obras, así como a la trascendencia de acometer las mismas a la mayor brevedad, estiman conveniente suscribir ahora el presente convenio.

OCTAVO.- Que, por todo lo expuesto, y de conformidad con lo señalado en los

de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak, SAK LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzea adostu dute, 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarenak, 47. artikuluan eta hurrengoetan, eta 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoak, 57. artikuluetan diotenarekin bat etorritik. Hitzarmenak ondoko klausula hauek izango ditu:

artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como en el artículo 57 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Agencia Vasca del Agua y la Mancomunidad de Aguas del Añarbe acuerdan formalizar el presente CONVENIO que se regirá por las siguientes,

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da, hitzarmen honen bigarren klausulan jasotako obrak gauzatzeko lankidetzan aritzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Uraren Euskal Agentziak eta Añarbeko Uren Mankomunitateak hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea.

PRIMERA.- OBJETO DEL CONVENIO.

El presente convenio tiene por objeto regular las condiciones en las que la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Agencia Vasca del Agua y la Mancomunidad de Aguas del Añarbe se comprometen a colaborar en la ejecución de las obras recogidas en la cláusula segunda del presente convenio.

BIGARRENA.- GAUZATU BEHARREKO JARDUKETAK.

Ondorengo klausuletan ezarritakoaren baitan gauzatu beharreko jarduerak, "DONOSTIAKO ANOETA ALDEKO SANEAMENDUAREN PROIEKTU EGUNERATUA. 1. FASEA"n jasotakoak

SEGUNDA.- ACTUACIONES A EJECUTAR.

Las actuaciones a ejecutar en los términos establecidos en las cláusulas siguientes son las recogidas en el "PROYECTO ACTUALIZADO DEL SANEAMIENTO DE LA ZONA DE ANOETA EN SAN

dira, 2020ko uztailean Sestra Ingeniería y Arquitectura S.L.-k idatzia.

Proiektuak barne hartzen dituen obretan, etorkizuneko saneamendu-sistemaren azken zatia egingo da, Anoeta erreka toren arroko isurketak bilduko dituen: Loiolako HUArekiko lotura, tarte horren hasieran eta amaieran egin beharreko fabrika-obrak barne. Kolektorearen zatia Anoetako kirol-instalazioen hegoaldean hasten da, Paco Yoldi udal-kiroldegia ondoan, eta Loiolako HUAra iristeko obraren eraikinean amaitzen da.

Soluzioa Anoetaren eta Loiolako HUAren arteko tinkatze bat da, hau da, 1.600 mm-ko barne-diametroko hormigoi armatuzko hodi batez bisita daitekeen galeria bat, barruan saneamenduko kolektore nagusia hartuko duena. Azken hori 600 mm-ko barne-diametroko beira-zuntzezko poliesterezko hodi indartuz osatuta dago.

HIRUGARRENA.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN KONPROMISOAK.

Gipuzkoako Foru Aldundiak konpromiso hauek hartzen ditu:

SEBASTIAN. FASE 1", redactado en julio de 2020 por Sestra Ingeniería y Arquitectura S.L.

Las obras que incluye el proyecto consisten en la ejecución del tramo final del futuro sistema de saneamiento que englobará los vertidos de la cuenca de la regata Anoeta: su conexión con la EDAR de Loiola, incluyendo las correspondientes obras de fábrica en el inicio y final de dicho tramo. El tramo de colector tiene su origen en la zona sur de las instalaciones deportivas de Anoeta, junto al complejo polideportivo municipal Paco Yoldi, y finaliza en el edificio de la obra de llegada de la EDAR de Loiola.

La solución se trata de una hinca entre Anoeta y la EDAR de Loiola que consistirá en una galería visitable con tubería de hormigón armado de 1.600 mm de diámetro interior y que alojará en su interior al colector general de saneamiento, constituido éste último por tubería de poliéster reforzado de fibra de vidrio de 600 mm de diámetro interior.

TERCERA.- COMPROMISOS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA.

La Diputación Foral de Gipuzkoa se compromete a:

a) Proiektuan jasotako obrak kontratatzeke benetako kostuen % 33 finantzatu eta ordaintzea.

a) Financiar y abonar el 33% de los costes efectivos de la contratación de las obras incluidas en el proyecto.

Hitzarmen honen arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzartzen duen gehieneko ekarpena MILIOI BAT LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMOKoa (1.453.283,68 euro) da, BEZa barne, eta ondorengo kredituekin finantzatzeko da: 2021erako ordainketa-kreditu bat, BERREHUN ETA HOGEI MILA eurokoa (220.000,00), 1.0320.200.741.02.01.2021 aurrekontuko partidaren kargura; 2022rako konpromiso-kreditu bat, BERREHUN MILA eurokoa (200.000 euro), 5.0320.200.741.02.01.2022 aurrekontuko partidaren kargura; eta 2023rako konpromiso-kreditu bat, MILIOI BAT HOGEITA HAMAHIRU MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMOKoa (1.033.283,68 euro), 5.0320.200.741.02.01.2023 aurrekontuko partidaren kargura. Denak Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuaren kargura finantzatzeko dira.

El importe previsto como aportación máxima que compromete la Diputación Foral de Gipuzkoa en virtud del presente convenio asciende a UN MILLÓN CUATROCIENTOS CINCUENTA Y TRES MIL DOSCIENTOS OCHENTA Y TRES EUROS CON SESENTA Y OCHO CÉNTIMOS (1.453.283,68 euros), IVA incluido, que se financiarán mediante un crédito de pago para 2021 con cargo a la partida presupuestaria 1.0320.200.741.02.01.2021 de DOSCIENTOS VEINTE MIL EUROS (220.000,00 euros); un crédito de compromiso para el ejercicio 2022 con cargo a la partida presupuestaria 5.0320.200.741.02.01.2022 de DOSCIENTOS MIL EUROS (200.000,00 euros); y un crédito de compromiso para el año 2023 con cargo a la partida presupuestaria 5.0320.200.741.02.01.2023 de UN MILLÓN TREINTA Y TRES MIL DOSCIENTOS OCHENTA Y TRES EUROS CON SESENTA Y OCHO CÉNTIMOS (1.033.283,68 euros) que se financiarán con cargo al presupuesto de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Lehenengo bi ordainketak, 2021ekoa eta 2022koa, independenteak izango dira obren egikaritze erritmoarekiko. Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko duen azken zenbatekoa aurreikusitako gehieneko ekarpena bete artekoa izango da, obraren kostuaren % 33ko mugarekin.

Urte bakoitzean egin beharreko ordainketak bakarrak edo anitzak izan daitezke, hitzarmen honen Jarraipen Batzordeak erabakitzen duenaren arabera.

Lanak amaitzean, obren azken ziurtagiriaren ale bat bidali behar da, eta eraikitakoa islatzen duten obra-amaierako planoak jaso behar ditu, egindako inbertsioa egiaztatzeko xedez.

b) Obren %33 finantzatzeko behar den kreditua duela eta honen erabilgarritasuna ziurtatzea, hitzarmena sinatu aurretik.

LAUGARRENA.- URAREN EUSKAL AGENTZIAREN KONPROMISOAK.

Uraren Euskal Agentziak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain:

a) "DONOSTIAKO ANOETA ALDEKO

Los dos primeros pagos de 2021 y 2022 serán independientes del ritmo de ejecución de las obras. La cantidad que finalmente aportará la Diputación Foral de Gipuzkoa será hasta cumplir con la máxima aportación prevista con el límite del 33% del coste de la obra.

Los pagos a realizar en cada anualidad podrán ser únicos o múltiples en función de lo que acuerde la Comisión de Seguimiento del presente convenio.

A la finalización de las obras deberá remitirse un ejemplar de la certificación final de las mismas, que deberá contar con los planos fin de obra que reflejen la realidad de lo construido, para acreditar la inversión realizada.

b) Certificar la existencia y la disposición del crédito preciso para financiar el 33% de las obras, con carácter previo a la firma del convenio.

CUARTA.- COMPROMISOS DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA.

La Agencia Vasca del Agua se compromete a:

a) Contratar las obras incluidas en el

SANEAMENDUAREN PROIEKTU EGUNERATUA. 1. FASEA”n jasotzen diren obrak kontratatzea, 2020ko uztailean Sestra Ingeniería y Arquitectura S.L.-k idatzia.

b) Aipaturiko lanak teknikoki zuzendu eta ikuskatzea.

c) Proiektuetan barruan dauden obren kontratazioaren kostuak finantzatzea eta haien %34 ordaintzea, hitzarmenean aurreikusten den modura.

Hitzarmen honen arabera, hauxe da Uraren Euskal Agentziak gehienez ere hitzartzen duen ekarpena: MILIOI BAT LAUREHUN ETA LAUROGEITA HAMAHAZPI MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA BI EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (1.497.322,59 euro) BEZ barne, ondorengo kredituekin ordainduko dena: 2021. urtean ordainketa-kreditu baten bidez, HAMAR MILA EURO (10.000,00 euro), 2022. urtean konpromiso-kreditu baten bidez, BOST EHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA BERROGEITA HIRU ZENTIMO (553.535,43 euro), eta 2023. urtean konpromiso-kreditu baten bidez, BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA

“PROYECTO ACTUALIZADO DEL SANEAMIENTO DE LA ZONA DE ANOETA EN SAN SEBASTIAN. FASE 1”, redactado en julio de 2020 por Sestra Ingeniería y Arquitectura S.L.

b) Dirigir e inspeccionar técnicamente las mencionadas obras.

c) Financiar y abonar el 34% de los costes efectivos de la contratación de las obras incluidas en el proyecto, en los términos previstos en el convenio.

El importe previsto como aportación máxima que compromete la Agencia Vasca del Agua en virtud del presente convenio asciende a UN MILLÓN CUATROCIENTOS NOVENTA Y SIETE MIL TRESCIENTOS VEINTIDOS EUROS CON CINCUENTA Y NUEVE CÉNTIMOS (1.497.322,59 euros), IVA incluido, que corresponden a un crédito de pago para 2021 de DIEZ MIL EUROS (10.000,00 euros), un crédito de compromiso para el ejercicio 2022 de QUINIENTOS CINCUENTA Y TRES MIL QUINIENTOS TREINTA Y CINCO EUROS CON CUARENTA Y TRES CÉNTIMOS (553.535,43 euros), y un crédito de compromiso para el año 2023, de NOVECIENTOS TREINTA Y TRES MIL SETECIENTOS OCHENTA Y SIETE EUROS CON DIECISÉIS CÉNTIMOS

HAMAHIRU MILA ZAZPIEHUN ETA
LAUROEGEITA ZAZPI EURO ETA
HAMASEI ZENTIMO (933.787,16 euro).
Denak Agentziaren aurrekontuaren
kontura finantzatzeko dira.

d) Hitzarmena sinatu aurretik, obren % 34
finantzatzeko behar den kreditua
badagoela eta eskuragarri dagoela
ziurtatzea.

**BOSGARRENA.- AÑARBEKO UREN
MANKOMUNITATEAREN
BETEBEHARRAK.**

Mankomunitateak, "Aguas del Añarbe-
Añarbeko Urak, S.A" kudeaketa-
sozietatearen bidez, honako betebeharrak
izango ditu:

a) "DONOSTIAKO ANOETA ALDEKO
SANEAMENDUAREN PROIEKTU
EGUNERATUA. 1. FASEA" aurkeztea,
indarrean dagoen legediaren arabera,
behar bezala ikuskatua eta onartua.

b) Obrak egikaritzeko beharrezkoak diren
lursailak Agentziaren eskura jartzea,
behin-behinean edo behin betiko.

c) Lursailak eskuratzeko gastu guztiak
bere gain hartzea.

(933.787,16 euros), que se financiarán con
cargo al presupuesto de la Agencia.

d) Certificar la existencia y la disposición
del crédito preciso para financiar el 34% de
las obras, con carácter previo a la firma del
convenio.

**QUINTA.- OBLIGACIONES DE LA
MANCOMUNIDAD DE AGUAS DEL
AÑARBE.**

La Mancomunidad, a través de su
Sociedad de Gestión "Aguas del Añarbe-
Añarbeko Urak, S.A.", se obliga a:

a) Aportar el "PROYECTO ACTUALIZADO
DEL SANEAMIENTO DE LA ZONA DE
ANOETA EN SAN SEBASTIAN. FASE 1,
conforme a la legislación vigente,
supervisado debidamente y aprobado.

b) Poner a disposición de la Agencia los
terrenos precisos, de modo temporal o
definitivo, para la ejecución de las obras.

c) Asumir la totalidad de los gastos
asociados a la adquisición de esos
terrenos.

d) Hitzarmen honen xede den proiektuan azaltzen diren obren kostu efektiboen %33 finantzatzea.

d) Financiar el 33% de los costes efectivos de las obras incluidas en el proyecto objeto del convenio.

Hitzarmen honen arabera, hauxe da Añarbeko Uren mankomunitatek, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA bere sozietate kudeatzailearen bidez gehienez ere hitzartzen duen ekarpena: MILIOI BAT LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAIRU MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (1.453.283,68 euro), BEZ barne, honela ordainduko dena: 2022. urtean ordainketa-kreditu baten bidez, LAUREHUN ETA LAUROGEITA LAU MILA LAUREHUN ETA HOGEITA ZAZPI EURO ETA LAUROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (484.427,89 euro), eta 2023. urtean konpromiso-kreditu baten bidez, BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (968.855,79 euro).

El importe previsto como aportación máxima que compromete la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, a través de su Sociedad de Gestión "Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.", para la financiación de las obras es de UN MILLÓN CUATROCIENTOS CINCUENTA Y TRES MIL DOSCIENTOS OCHENTA Y TRES EUROS CON SESENTA Y OCHO (1.453.283,68 euros), IVA incluido, que se financiarán con un crédito de pago para el ejercicio 2022 de CUATROCIENTOS OCHENTA Y CUATRO MIL CUATROCIENTOS VEINTISIETE EUROS CON OCHENTA Y NUEVE CÉNTIMOS (484.427,89 euros) y con un crédito de compromiso para el ejercicio 2023 de NOVECIENTOS SESENTA Y OCHO MIL OCHOCIENTOS CINCUENTA Y CINCO EUROS CON SETENTA Y NUEVE CÉNTIMOS (968.855,79 euros).

e) Obren %33 finantzatzeko behar den kreditua duela eta honen erabilgarritasuna ziurtatzea, hitzarmena sinatu aurretik.

e) Certificar la existencia y la disposición del crédito preciso para financiar el 33% de las obras con carácter previo a la firma del convenio

f) Obren kontratazioa egin aurretik behar diren lizentziak, baimenak eta administrazio izapideak lortzea.

g) Obrak amaituta, haiek Uraren Euskal Agentziarengandik jasotzea. Obra hauek Mankomunitatearen jabetzan geratuko dira eta honek, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.Aren bitartez, haien kudeaketa eta mantentzearen ardura bere gain hartuko du, azpiegituren ustiapen eta kontserbazio zuzen bat egiteko behar diren aurrekontu-aurreikuspen eta neurriak hartzera konprometituz.

SEIGARRENA.- OBREN KONTRATAZIOA, ZUZENDARITZA, IKUSKATZEA ETA ESPLOTAZIOA.

1.- Uraren Euskal Agentziak, hitzarmen honetako 4.a) klausularen arabera, bere gain hartzen du hitzarmenean jasotako obren kontratazioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari aplikatu dakiokeen kontratazio-araudiaren arabera.

2.- Egin beharreko obren zuzendaritza eta ikuskaritza teknikoa Uraren Euskal Agentziak egingo du. Orobat, ziurtapenen onarpena ere Agentziak egingo du.

f) Obtener las licencias, autorizaciones y demás trámites administrativos previos y necesarios para la contratación de las obras.

g) Recibir de la Agencia Vasca del Agua las obras una vez terminadas y recibidas por ésta, obras que quedarán en su propiedad afectas al servicio público, obligándose la Mancomunidad, a través de su Sociedad de Gestión "Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.", a su gestión y mantenimiento adecuados, comprometiéndose a realizar las previsiones presupuestarias y a adoptar las demás medidas precisas para su correcta explotación y conservación.

SEXTA.- CONTRATACIÓN, DIRECCIÓN, INSPECCIÓN Y EXPLOTACIÓN DE LAS OBRAS.

1.- La Agencia Vasca del Agua, conforme a la cláusula 4.a) del presente convenio, se hace cargo de la contratación de las obras objeto del convenio según el régimen de contratación aplicable a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Corresponderá a la Agencia Vasca del Agua la dirección e inspección técnica de las obras a ejecutar. Además, corresponderá a la citada Agencia la aprobación de las certificaciones.

3.- Agentziak obrak hartzen dituenean, haiek Mankomunitatearen eskura jarriko ditu, ondoren ustiatu eta kontserba ditzan bosgarren klausulan adierazitakoari jarraituz.

Obrak Mankomunitatearen esku uztea eta honen hitz ematea hauek behar bezala zaindu eta ustiatzeko, akta baten bidez egingo da.

4.- Hitzarmena gauzatzen den bitartean, Uraren Euskal Agentziak ez du konpromisorik ezta erantzukizunik izango ur zikinen saneamendu eta arazketari dagokionez, eskumen hau dagokion tokiko erakundeak duelarik.

ZAZPIGARRENA.- OBRAK FINANTZATU ETA ORDAINTZEA.

1.- Uraren Euskal Agentziak lanen kontrataziorako gastu baimena onartzeko, aldez aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Añarbeko Uren Mankomunitateak, "Aguas del Añarbe-

3.- Recibidas las obras por la Agencia, ésta las pondrá a disposición de la Mancomunidad, para su posterior explotación y conservación conforme a lo indicado en la cláusula quinta.

La transmisión de la posesión de las obras a la Mancomunidad, así como su compromiso de adecuada conservación y explotación conforme a lo indicado en la cláusula quinta, se articularán mediante un acta.

4.- Durante la ejecución de las obras previstas en este convenio, la Agencia no asume compromiso ni responsabilidad alguna en cuanto a la obligación de saneamiento y depuración de aguas residuales, que compete a la entidad local responsable de la gestión del saneamiento y la depuración en la zona afectada por las obras.

SÉPTIMA.- FINANCIACIÓN Y PAGO DE LAS OBRAS.

1.- Antes de la autorización del gasto de la contratación por la Agencia Vasca del Agua, la Diputación Foral de Gipuzkoa y la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, a través de su Sociedad de Gestión "Aguas

Añarbeko Urak, SA"ren bidez, Agentziari bidali beharko diote lizitazio-aurrekontuaren zenbatekoaren %33ari aurre egiteko nahiko eta beharrezko aurrekontu-kreditua duela ziurtatzen duen ziurtagiria, hirugarren eta bosgarren klausuletan xedatutakoaren arabera, hurrenez hurren.

2.- Kontratuak izan ditzakeen gorabeherak esleipen-prezioari eragiten badiote (hala nola gehiegizko likidazioak, prezioen berrikustek, zerga-tipoen aldaketak eta abar), edo obretan aldaketak egiten badira eta obra osagarriak edo gehigarriak egiten badira, horiek guztiak alderdi batek zein besteak finantzatzeko dituzte, hirugarren, laugarren eta bosgarren klausuletan aipaturiko portzentaiei arabera.

Kontratuko gorabehera horiek onartzeko, hitzarmenaren jarduketan jarraipenerako batzordearen txostena ez ezik, beharrezkoa izango da alde batetik, dagokion administrazio-erakundearen onespena, eta bestetik, alderdiek agiri bidez ziurtatzea badutela behar bezalako kreditua, gorabehera, aldaketa edo obra osagarri edo gehigarri horiek direla-eta alderdiek hirugarren, laugarren eta bosgarren klausuletan bere gain hartzen dituzten aurrekontu-konpromisoak

del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.", remitirán a la citada Agencia el certificado de la existencia del crédito presupuestario adecuado y preciso para dar cobertura al importe que asumen de acuerdo a lo dispuesto en la cláusula tercera y quinta respectivamente.

2.- Las incidencias contractuales con repercusión económica sobre el precio de adjudicación (tales como exceso en liquidación, revisiones de precios, modificación de tipos impositivos etc.), así como los modificados de obra y las obras accesorias o complementarias, serán financiados en los porcentajes indicados en las cláusulas tercera, cuarta y quinta por cada una de las partes.

Para la aprobación de las citadas incidencias o actuaciones contractuales, además del informe de la comisión de seguimiento del convenio, será preceptiva la aprobación por el órgano administrativo correspondiente, así como la certificación de la existencia y de la disposición de crédito adecuado para la cobertura por cada una de las partes de los importes que se comprometen a financiar, cuando se exceda de los compromisos presupuestarios asumidos por las partes en

gainditzen badira, hauek finantzatzeko adinakoa.

3.- Obrak alderdi bakoitzak ordainduko ditu, klausula horietan ezarritakoaren arabera, bakoitzak bere gain hartutako finantza-konpromisoen mugarekin.

4.- Uraren Euskal Agentziak kontratistak fakturatutako obraren zenbateko osoa ordainduko du. Horretarako, enpresa kontratistak Uraren Euskal Agentziak onartutako ziurtagiri bakoitzari dagozkion 2 faktura egingo ditu, honela:

Batetik, Uraren Euskal Agentziari zuzendutakoa, Agentziari eta Aldundiari dagokien zenbatekoari buruzkoa. Faktura jaso ondoren, Uraren Euskal Agentziak dagokion ziurtagiria jasanaraziko dio Aldundiari, hitzarmenaren hirugarren eta laugarren klausuletan ezarritako finantzaketa-ehunekoaren arabera; zenbateko hori 30 eguneko epean ordainduko zaio Uraren Euskal Agentziari.

Bestetik, Mankomunitateari zuzendutakoa, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA kudeaketa sozietatearen bidez, hitzarmenaren bosgarren klausulan ezarritako finantzaketa-ehunekoaren arabera.

las reiteradas cláusulas tercera, cuarta y quinta.

3.- Hasta el límite de los compromisos financieros asumidos, el pago de las obras se realizará por cada una de las partes según lo referido en dichas cláusulas.

4.- La Agencia Vasca del Agua procederá al pago del importe total de la obra facturada por el contratista. Para ello la empresa contratista emitirá 2 facturas correspondientes a cada certificación aprobada por la Agencia Vasca del Agua de la siguiente manera:

Por un lado, a la Agencia Vasca del Agua la cantidad correspondiente a la Agencia y a la Diputación. Una vez recibida la factura, la Agencia Vasca del Agua repercutirá a la Diputación la correspondiente certificación en función del porcentaje de financiación establecido en las cláusulas tercera y cuarta del Convenio, la cual será abonada a la Agencia Vasca del Agua en el plazo de 30 días.

Por otro lado, a la Mancomunidad a través de su sociedad de gestión Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. según el porcentaje de financiación establecido en la cláusula quinta del Convenio. Una vez recibida la factura del contratista, la

Kontratataren faktura jaso ondoren, Mankomunitateak, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SA kudeaketa sozietatearen bitartez, 30 eguneko epean ordainduko dio fakturaren zenbatekoa Uraren Euskal Agentziari, eta horrek, azkenik, kontratistari ordainduko dio faktura.

ZORTZIGARRENA.- JARDUKETEN JARRAIPENERAKO BATZORDEA.

1.- Hitzarmen honen jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde hori sei ordezkari osatuko dute. Bi Gipuzkoako Foru Aldundikoak izango dira, beste bi Uraren Euskal Agentziakoak eta beste bi Añarbeko Uren Mankomunitatekoak. Hitzarmena sinatzen duen alde bakoitzak izendatuko ditu bere ordezkariak, honako eginkizun hauetarako:

a) Hitzarmen honetan aurreikusitako obrak behar bezala burutzen ari direla egiaztatzeko jarraipena egitea, eta, horretarako, bi erakundeek bata bestearen informazioa izan dezaten eta elkarrenganako konpromisoak behar bezala bete ditzaten irizpide eta moduak ezartzea.

b) Lan bakoitzerako behar diren izapideak

Mancomunidad a través de su Sociedad de Gestión "Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A." abonará en el plazo de 30 días a la Agencia Vasca del Agua el importe de la misma, quien, a su vez, abonará la factura finalmente al contratista.

OCTAVA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO DE LAS ACTUACIONES.

1.- Se constituirá una comisión de seguimiento del presente convenio compuesta por seis representantes, dos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, dos de la Agencia Vasca del Agua y otros dos de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, que serán designados, respectivamente, por las partes firmantes del presente convenio, para el desempeño de las siguientes funciones:

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Facilitar la remoción de los obstáculos

agudo egiteko oztopoak kentzen saiatzea.

c) Hitzarmen honen gai diren jardunak burutuko direla bermatzeko behar diren neurriak proposatzea, batez ere, urtekoak egokitu beharreko kasuetan eta zazpigarren klausulan jasotakoetan.

d) Hitzarmenak ekar ditzakeen interpretatzeko eta burutzeko arazoei irtenbideak ematen saiatzea.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta edozein aldetako ordezkariak hala eskatzen badu, batzordea jardunak ondo joan daitezen behar den guztietan elkartuko da. Bilkura egiteko kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

3.- Jarraipen Batzordearentzat espresuki jasotzen ez dituen gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen den kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

c) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades y en los recogidos en la cláusula séptima.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Durante la vigencia del convenio la comisión se reunirá a propuesta de cualquiera de las partes y siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. Los quorum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la Sección 3ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**BEDERATZIGARRENA.-
HITZARMENAREN ARAUBIDEA ETA
INTERPRETAZIOA.**

1.- Hitzarmen hau administrazio arlokoa da eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetzaren hitzarmenei aplikatu beharreko administrazioko ordenamendu juridikoa bete beharko da.

2.- Hitzarmenak edo hori betearazteak sortarazitako interpretazio-arazoak jarraipenerako batzordeak konponduko ditu aurreko klausulan esandakoari jarraikiz, eta, hala ezin bada, 40/2015 legea bete beharko da.

**HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN
ONDORIOAK ETA IRAUPENA.**

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko bere aginpideei uko egin edo haiek aldatzera. Parte-hartzaileek hitzarmenaren ondorio diren konpromisoengatik erantzukizunak bakarrik hartuko dituzte bere gain.

2.- Hitzarmenak sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta ordutik behartuko ditu parte-hartzaileak, jarduketa gauzatzeko

**NOVENA.- RÉGIMEN E
INTERPRETACIÓN DEL CONVENIO.**

1.- El convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución serán resueltos por la comisión de seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en la citada Ley 40/2015, de 1 de octubre.

**DÉCIMA.- EFECTOS Y DURACIÓN DEL
CONVENIO.**

1.- El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma, y durará hasta la liquidación y pago de la

kontratazioaren likidazioa eta ordainketa egin arte iraungo du, gehienez ere lau urtez hasiera batean, epe hau legeriaren arabera luzatu ahal izango delarik.

contratación de la actuación para su ejecución, con un máximo inicial de cuatro años prorrogables de conformidad con la legislación aplicable.

HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA IRAUNGITZEA.

UNDÉCIMA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

1.- Hitzarmena aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako iraungiko da.

1.- El convenio se extinguirá o bien por el transcurso del plazo de vigencia referido en la cláusula anterior, o por resolución.

2.- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak betetzen ez baditu, beste alderdien esku egongo da haiek zorrotz betearaztea edo hitzarmena hautsi dadin eskatzea, alderdietako edozeinek hala eskatuta, idatziz eta modu ziurtatuan, hilabeteko gutxieneko epean. Hitzarmena hausten bada, alderdiek erabakiko dute zer baldintzatan amaituko den, eta hasita dauden lanak nola ordainduko diren, baita horiek egin ondoren --gingo balira -- nola emango diren ere.

2.- En caso de incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a las otras, a exigir su estricto cumplimiento, o solicitar la resolución del convenio, previa denuncia por cualquiera de las partes mediante comunicación escrita fehaciente con un plazo de antelación de al menos un mes. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las actuaciones que se hallen en ejecución y, en su caso, para la posterior entrega de las mismas.

Hitzarmena ez betetze arrazoi batengatik hausten bada, sortutako gastuen ordainketa ekarriko du kalte ordain gisa.

La resolución del convenio por incumplimiento, dará lugar a la indemnización de los gastos ocasionados.

Eta ados daudela adierazteko,
interesdunek hitzarmen honen hiru ale
sinatu dituzte, goiburuan adierazitako
lekuan eta egunean.

Y en prueba de conformidad suscriben los
interesados, por triplicado, en el lugar y
fecha indicados en el encabezamiento.


INGURUMENENKO ETA OBRA
HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUA /
EL DIPUTADO DE MEDIO AMBIENTE Y
OBRAS HIDRÁULICAS

URAREN EUSKAL AGENTZIAKO ZUZENDARI
NAGUSIA / DIRECTOR GENERAL DE LA
AGENCIA VASCA DEL AGUA

JOSÉ IGNACIO ASENSIO BAZTERRA



ANTONIO AIZ SALAZAR



AÑARBEKO UREN MANKOMUNITATEKO
PRESIDENTEA / LA PRESIDENTA DE LA
MANCOMUNIDAD DE AGUAS DEL AÑARBE

MIREN JAIONE HERVÁS SÁEZ DE ARREGUI



AÑARBEKO UREN
MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DE
AGUAS DEL AÑARBE

